


Lorik egiten ez dutenak NASH



Dolores Redondo

Itzultzailea: Arratibel Garmendia, Miren

Bilduma: Uzta gorria, 38

Formatua: 135 x 205 mm

Orrialdeak: 600

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2025-07-01

ISBN-a: 978-84-1093-058-2

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

26,00 €



Egia batzuk badaude lorik egiten ez dutenek bakarrik aurkitzen dituztenak

Nash Elizondo psikologo forentseak sorginkeriar buruzko kondaira baten jatorria dokumentatu du Legarrea leizean, Nafarroako Ibar Lasaietako batean, baina leizera jaitsi denean, duela hiru urte desagertutako Andrea Dancur gaztearen gorpua aurkitu du. Kasu horrek eskualde osoa hunkitu zuen, eta emakume bat dago kartzelan neska hura hiltzeagatik. 2020ko martxoan gaude, pandemiaren hasieran eta itxialdiaren atarian. Aurkikuntzak eta arrasto berriek ikerketa berriro irekitzera behartzen dute, oraingo honetan metodo zientifikoa erabiltzeaz gain, inplikatuak psikologian sakonduz eta antzinako misterioak ezagutuz ere bai.

Prosa bizi sarkorraz, Dolores Redondok iluntasunean bizirauten ikasi dutenen erru, galera eta erresistentzia isilari buruzko istorioa ehuntzen du. Lorik egiten ez dutenak NASH ez da thriller hutsa: giza arimaren erretratu hunkigarria da, pertsonaia nagusi ongi taxutuekin eta irakurleari gogoan geldituko zaizkion bigarren mailako pertsonaiekin.

Dolores Redondo



Donostian jaio zen, 1969an, baina Cintruénigon bizi da. Zuzenbide- eta Sukaldaritza-ikasketak egin zituen, eta kontaera laburren eta haurrentzako ipuinen bidez hasi zuen bere literatura-ibilbidea. *Batzango Trilogia* arrakastatsuen egilea da. 2013an argitaratu zuen hirukoaren lehen liburua, *Zaindari ikusezina*. Trilogiaren hurrengo liburuak dira *Hezurren ondarea* eta *Eskaintza ekaitzari*.

Ikaragarritzko arrakasta izan du gaztelaniaz ez ezik euskaraz ere hiru lan horiekin. Bertan oinarrituta egin dira izen bereko hiru film arrakasta handikoak ere. 2016an, Planeta saria eman zioten *Hori guztia emango dizut* eleberriagatik. 2019an *Bihotzaren ipar aldea* argitaratu zuen; eta 2021ean, *Aingeruaren pribilegioak* (2009an argitaratu emandako bere *opera prima*). Redondoren lanak 36 hizkuntzataraz itzuliak izan dira, euskara tartean dela, eta Ereinen argitaratuak daude guztiak.

<http://www.doloresredondomeira.com/>